



2015eko JAIEN PREGOIA

Arrasti on:

Abesbatza osatzen dugun guztion partez eskerrik asko, bereziki, Natxo alkateari eta aurten, abesbatzaren fundazioaren hogeita bosgarren urteurrena ospatzen dugun honetan, jaietako pregoilari izaten lagundu diguzuen guztioi.

Bide honetan lehenengo pausoak eman zituztenei ere eskerrak eman nahi dizkiegu: fundatzaileetako bat izan zen lehenengo presidente Maria Jesus Meazari, bigarren presidente izandako Esperanza Rinconi, gaur arteko batzorde guztietako kide guztiei eta hasiera-hasieratik abesbatzarekin konpromiso irmoa izan duten abeslari guztiei.

Sara Urquijok lehenik eta Noemi Santistebanek gero gazte-gazte zirela hartu zuten Andere abesbatza sortu berriaren presidente izateko ardura. Pianoarekin laguntzen diguten eta, gaur egun ere, bokalizazio teknikak irakasten dizkiguten profesional guztiei ere, eskerrik asko. Oroitzapen berezia eskaini nahi diot Santa Luzia abesbatzaren sortzaileetako bat izandako Jose Maria Gomez "Gomitori". Tamalez, denbora laburregia izan zuen berak ederto egiten zuena modu altruistan irakasteko, hau da, abesten irakasteko. Abesbatzako kide guztiek aginduta eta atsegin handiz, merezi duelako, gaurko egun berezi honetan eskerrak eman nahi dizkiogu gure zuzendari Feliperi, geure baitan ezkatututa genuena, hau da, musikarekiko grina ateratzen laguntzeagatik. Eskerrik asko, Felipe.

Laudioko musika-enbaxadoreak gara gertuko zein urruneko herrietan, Euskal Herrian zein kanpoan. Sekula ikusi ez gaituzten eta, ziur aski, berriro ikusiko ez ditugun pertsona askok abegitsu hartzen eta entzuten gaituzte.

Benetan atsegina da ikustea nola hunkitzen diren beste lurretara emigratzean euren herria ariman eraman zuten euskal herritarrak. Musikari esker, pertsona askorekin senidetu garelara sentitzen dugu.

Ez naiz hemen aipatzen hasiko izan ditugun emanaldien zerrenda luzea; jaien egitarauan duzue

PREGÓN de FIESTAS 2015

Buenas tardes:

Muchas gracias en nombre de todas las que formamos esta coral, en especial a Nacho el alcalde y a todos los que habéis contribuido a que hoy estemos aquí como pregoneras de las fiestas, precisamente en este año en que celebramos veinticinco años de nuestra fundación.

Queremos también dar las gracias a todas las que empezaron esta andadura, a la primera Presidenta y cofundadora, María Jesús Meaza, a la segunda, Esperanza Rincón, a todas las componentes de todas las juntas hasta el día de hoy, y a todas las coralistas que desde el inicio siguen fieles a la coral.

A Sara Urquijo, primero, a Noemí Santisteban, después, quienes muy jovencitas comenzaron siendo directoras del recién formado coro Andere. A todos los profesionales, los que nos han acompañado con el piano y los que nos han enseñado -y lo siguen haciendo - la técnica de vocalización. Quiero tener en este punto también un recuerdo especial para un cofundador de la Coral Santa Lucía, José María Gómez, "Gomito", quien tristemente por poco tiempo nos dedicó altruistamente sus energías para enseñarnos lo que él sabía hacer muy bien: cantar. Me han encargado asimismo todas mis compañeras, y yo lo hago muy a gusto porque se lo merece, agradecer en este día tan especial a Felipe nuestro director, quien se esfuerza por sacar de nosotras lo que no éramos conscientes de tener, esto es, la pasión por la música. Gracias, Felipe.

Somos embajadores musicales de Laudio en los pueblos cercanos y del País Vasco en los lejanos. Con todo el cariño nos acogen y nos escuchan personas que nunca habíamos visto y que posiblemente nunca las volveremos a ver.

Es muy gratificante sobre todo el ver cómo se emocionan con los cantos de su tierra los vascos que emigraron a otros lugares y que al marchar llevaron su país en el alma.

Nos sentimos de verdad hermanados con muchas personas por la música.

No voy a relatar aquí el extenso historial de actuaciones; ya lo tenéis a grandes rasgos en el

handi-handika. Baina gustatuko litzaidake guztion izenean azaltzea guretzat zer esangura duen hasieratik hona ibilitako bideak.

Gertatu ohi den bezala, latzak izan ziren hasierako uneak eta guretzat bereziki, emakume izategatik. Honaino iristeko, maiz abesten dugun "GOAZEN MENDIRIK MENDI" abestiak dioen bezala, ibarrik ibar eta tontorrik tontor ibili behar izan dugu, nekeari jaramon egin barik, gogor lan eginda, ez dugulako aita-amabitxi dirudunik izan.

Gaur egun, prestatzeko lanetan jarraitzen dugu, abesten bakarrik ez, ondo abesten irakasten diguten profesional bikainen laguntzaz. Halaber, instituzioei ere geure balioa erakutsi nahi izan diegu, euren laguntza lortzeko asmoz. Baita lortu ere, Jainkoari eskerrak: profetak gara gurean!

Ez gara abesten ikasteko, entseatzeko eta kontzertuak emateko elkartzan den emakume talde bat soilik. Askoz gehiago gara eta orain ulertuko duzue zergatik.

Pregoilari izateko ohorea izango genuela esan zigutenean, pentsatu genuen polita litzatekeela barruko kontuak ezagutzera ematea, egunerokotasunaren erraiak ikusaraztea, guretzat abesbatzako kide izateak duen esangura jendarteratzea eta, horretarako, inkesta txiki bat egin genuen abesbatzako kideon artean. Nork bere bihotzak iradokitzen ziona esan zuen. Gehienok bat etorri ginen erantzunetan.

Hauek jasotako iritzietako batzuk baino ez dira:

"Bizitzan izan dudan esperientziarik onena."
"Pertsonak gehiago maitatzen ikasi dut."
"Familia bat gara."
"Baten arazoa guztiona da."
"Guztien laguntza izan dut une zailetan."
"Autoestimu terapia bikaina da."
"Bikotekidearen gaixotasuna jasaten laguntzen didazue."
"Une latzetan, abesbatzak animoak eman zizkidan eta dolua gainditzen lagundu zidan."
"Abesbatzak bihotza eta arima betetzen dizkit."
"Guztien artean, gaixotasuna alaitasunez jasaten laguntzen didazue."
"Gustuko dut abestea eta jendearekin harremanetan sartzea. Oso gustura nago."
"Desadostasunak izan ditugu, familia guztietan bezala, baina gauza onak baino ez dira geratzen, hemen ez dago ezinikusirik."
"Lana ez da nekeza, ilusioz egiten delako."
"Garrantzitsua da musika ikastea, musika-edukiak ulertzea eta egiten duzuna sentitzea."
"Harmonia taldean, penez betetako uneak."

programa de fiestas.

Lo que quiero en nombre de todas es decirlo brevemente lo que ha significado desde su inicio.

Como casi siempre, los comienzos fueron muy duros, y en especial para nosotras por ser mujeres. Hemos llegado hasta aquí -como dice la canción que muchas veces cantamos: "GOAZEN MENDIRIK MENDI"- subiendo de monte en monte, sin importarnos el cansancio, todo con mucho trabajo, porque nosotras no hemos tenido padrinos.

Actualmente seguimos trabajando por formarnos y por contar con grandes profesionales que nos enseñan a cantar, y a hacerlo bien. De igual manera hemos querido demostrar a las instituciones nuestro valer para recibir su apoyo, y gracias a Dios lo hemos conseguido: ¡somos profetas en nuestra tierra!

Nuestra asociación no es sólo un grupo de mujeres que se reúne para aprender a cantar, para ensayar y dar conciertos. Somos mucho más que eso, y ahora lo comprenderéis.

Cuando nos comunicaron este honor de ser pregoneras pensamos que estaría bien que conociésemos un poco lo íntimo, las entrañas de nuestro día a día, lo que supone para nosotras pertenecer a la coral, y para ello hicimos una pequeña encuesta entre las componentes del coro. Cada una dijo lo que en ese momento su corazón le sugería. La mayoría coincidió en las respuestas.

Os mostramos a continuación algunas de las opiniones recogidas:

"Es la experiencia mejor de mi vida"
"He aprendido a querer más a las personas"
"Nos consideramos una familia"
"El problema de una es compartido por todas"
"He tenido el apoyo de todas en momentos tristes"
"Es una terapia para la autoestima personal"
"Me ayudáis a sobrellevar la enfermedad de mi pareja"
"En momentos difíciles la coral me sirvió de ánimo y superación del duelo"
"La coral me llena el corazón y el alma"
"Entre todas me ayudáis a sobrellevar mi enfermedad con alegría"
"Me gusta cantar y relacionarme con la gente. Estoy super a gusto"
"Hemos tenido desacuerdos como en todas las familias, pero sólo queda lo bueno, el rencor no existe"
"El trabajo no se hace cuesta arriba porque se hace con ilusión"
"Aprender música, entender contenidos musicales, sentir que lo que haces es importante"

"Diziplina, seriotasuna eta, konprometizean, konpromisoa."

"Bizikidetzak gauza onez janzten gaitu."

Eta borobiltzeko, abesbatzan sartu den azken kidearen iritzia:

"Abesbatza honek sekulako bihotza du."

Neure esperientzia pertsonala bat dator gainerakoek esandakoarekin. Bizitzaren zati ditut eta, noizbehinka jokabideren bat egokia ez dela esan behar dieran arren, badakite taldeak ondo funtzionatzeko egiten dudala.

Presidente naizen heinean, eta badira jada 19 urte, abesbatzatik igaro direnak ere gogora ekarri beharrean nago. Batzuek familia-arazoengatik utzi zuten abesbatza, beste batzuek bizimodua aldatu zutelako eta beste batzuek gure artetik joan zirelako. Eta une honetan, abesbatza sortu zutenetako baten hitzak oroitu behar ditut, pairatu zuen gaixotasun luzeak iraun zuen bitartean, hau esaten baitzion medikuari:

"Emadazu kimioa barikuan eta martitzenean, horrela, entseguetara joan ahalko dut. Astelehen eta eguenetan entseatzan dugu." Hil baino hilabete lehenago ere, ez zuen abesbatzako kideekin egoteko une bakar bat ere galdu nahi izan.

Lan egin dut, sufritu, gau asko igaro ditut lo egin barik, baina ondo erabilitzat dut dena, beste familia handi bat dudalako eta Laudiook hau bezalako abesbatza bat merezi duelako; musikaz eta korukantuek maitemindutako abesbatza. Eta zorionez, ahots gazteak batzen ari zaizkigu, etorkizunean gure oinatzan bidetik pausoak ematen jarraitzeko.

Lagun gaitzazue aurrera egiten, beste emakume batzuek ere musika izeneko zoramen eder honekin jarraitzeko aukera izan dezaten.

Eskerrik asko guztioi eta AUPA LAUDIO!
ONDO PASA JAIETAN!

"Armonía en el grupo, momentos muy felices"

"Disciplina, seriedad, y compromiso cuando te comprometes"

"Nuestra convivencia resulta muy enriquecedora"

y como colofón, la opinión de la última en incorporarse al coro:

"Esta coral tiene un gran corazón"

Mi experiencia personal concuerda con todo lo dicho por las demás. Son parte de mi vida, y aunque a veces tenga que indicar que algún comportamiento no es correcto, saben que lo hago por el buen funcionamiento del grupo.

Como Presidenta -ya desde hace casi 19 años- me siento también en la obligación de recordar a las que han pasado por el coro y ya no están, unas por problemas familiares, otras porque cambiaron su estilo de vida, y otras porque se quedaron en el camino. No puedo menos de recordar en este punto a una que fue cofundadora de la coral y en su larga enfermedad le decía a su médico:

"Dame la quimio el viernes y el martes, así podré ir a los ensayos. Ensayamos los lunes y jueves." Hasta un mes antes de su muerte no quiso perderse un momento de estar con sus compañeras.

He trabajado, he sufrido, he pasado muchas noches sin dormir, pero todo lo doy por bien empleado, pues tengo otra gran familia, y Laudio merece tener una coral como la nuestra, enamorada de la música y el canto coral. Para eso siguen incorporándose voces jóvenes que seguirán nuestros pasos.

Ayudadnos para que avancemos y para que otras mujeres puedan continuar con esta locura tan hermosa como es la música.

Gracias a todos y ¡AUPA LAUDIO!
¡FELICES FIESTAS!